

FITXA: 203 - GIPUZKOA - Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia: **«eguneroko bizikleta Gipuzkoako udalerrietan».**

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek eta eskualde mailako sektore publikoko entitateak jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.	
Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari Deialdiaren data: 2026/03/04 Ofiziala	
Sarbide-esteka: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera	
Erreferentziazko araudia: 2026ko otsailaren 17ko erabakia - https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/04/c2601268.pdf	
Eragin eremuak: Ingurumena	
Zenbatekoa: 100.000,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/05	Aurkezteko azken eguna: 2026/04/06
Aurrerakina: Ez da zehaztu	Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: 15.000,00 €	Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Laburpena

Eguneroko bizikleta mugikortasuna eta ziklogistika sustatzeko neurri integratuen paketeak barne hartzen dituzten proiektuak egitea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- A) Eguneroko garraioa sustatzeko neurriak.
- B) Ziklogistika sustatzeko neurriak azken miliako entrega-zerbitzuetan.

Jarduera-ildoak

- A) Eguneroko garraioa sustatzeko neurriak:

1.— Lan inguruneetarako eguneroko bizikleta garraioa sustatzeko neurriak (industrialdeak,

lantokiak).

2.— ikastetxeetara eguneroko bizikleta garraioa sustatzeko neurriak (ikastetxeak/LH/unibertsitatea).

3.— Oro har jendea erakartzen duten inguruneetara (merkataritza gunek, kultura zentroak, kirol zentroak, osasun zentroak, egoitzak eta abar) bizikletaz egiten den eguneroko garraioa sustatzeko neurriak.

4.— Ekitaldi masibo garrantzitsuetara bizikletaz joatea sustatzeko neurriak.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza ordaintzeko, laguntzaren oinarri den proiektua egin beharko da, eta ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdiaren urteko urriaren 31ra arte, hurrengo apartatuan zehazten diren egiaztagiria aurkeztu ondoren.